



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2016ko urriak 6
Ordua: 19:00 – 19:45
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gelan

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba.

Ez dira bertaratu:

Jose Luis de Valle Duque
Alazne Lafragua Ureta

M^a Ascensión Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2016ko abuztuaren 30ean eta irailaren 1 eta 15ean egindako saioetako aktak zirriborroan onartzea, hala badagokio.

Alkate jaunak hartu du hitza: Beno, hemen aipatu duzuen moduan, Josebaren izena ez dago zuzen idatzia.

Ascension Hormazabal Meabe: Mugaketa-akordioaren data, lur-neurketaren data, abenduak 12 da, eta ez abenduak 10. Akats bat dago. Buletinean eta interesdunei igorritako jakinarazpenean ongi agertzen da, baina akordioan bertan oker dago. Nire akatsa.

Oharrik egin ez denez, 2016ko abuztuaren 30ean egindako saioko akta bozkatu da.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

Oharrik egin ez denez, 2016ko irailaren 1ean egindako saioko akta bozkatu da.



Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

Onartuta geratu da.

Oharrik egin ez denez, 2016ko irailaren 15ean egindako saioko akta bozkatu da.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik(3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderditik (3);

Onartuta geratu da.

2. 8/2016 kreditua gaitzea.

Alkatea: proiektua irakurriko dut.

“AKORDIO-PROIEKTUA

Ikusirik, indarrean dagoen 2016ko Udal Aurrekontuaren Gastuen Egoeran gaitutako ordainketa-kredituei buruzko akordioa, 17.079,08 euroko zenbatekoaz.

Ukertuta, Idazkari eta Kontu-hartzaileak jakinarazten duenez, espedientea bat datorrela otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 31. artikuluan eskatutako betekizunekin eta Egikaritze-aurrekontuaren Udal Arauan ezarritakoarekin, 2016ko irailaren 28an egokiro egindako Ogasun eta Antolamendu Informazio Batzarrean proposatzen zaio Udalbatzari har dezala hurrengo

AKORDIOA

Aipatutako akordioa eta bertatik eratortzen diren diru-sarrera eta gastuekin lotutako egoeren aldaketak, jarraian zerrendatzen direnak, onartzea:

SARREREN EGOERA

Kredituaren ondoriozko diru-sarrerak dira:

AURREKON TU- APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEK OA
--	--------------	------------------------



710.02	Eusko Jaurlaritza Udaletxe zaharraren igogailurako irisgarritasuna eta komuna hobetzeko diru-laguntza	17.079,08
	GUZTIRA	17.079,08

eta, aurrekontuari dagokionez, 2016ko ekitaldirako indarreko Aurrekontuaren Diru-sarreraren Egoera aldatzea dakarte, modu honetan:

AURREKONT U- APLIKAZIOA	IZENA	HASIERAK O KREDITUA	IGOERA	KREDITUA GUZTIRA
710.02	Eusko Jaurlaritza Udaletxe zaharraren igogailurako irisgarritasuna eta komuna hobetzeko diru-laguntza	5026.42	17.079,08	22.105,50
		5.026,42	17.079,08	22.105,50

DIRU-SARRERA KONTZEPTUAN IGOERAREN ZENBATEKO OSOA:

17.079,08

GASTUEN EGOERA

Aurrekontu- aplikazioa	IZENA	ZENBATEK OA
241.421.003	Enplegurako Eskualde Plana 2016. Aiarako kuadrilla.	5.000,00
241.421.004	Ekonomia eta Industria berrabiarazteko Plana Aiarako kuadrilla.	1.500,00
942.421.001	Aiarako kuadrilla. 2015eko 4. hiruilekoko ekarpenak	6.207,91
1621.227.004	Etxeko olioaren bilketa.	3.010,22
342.226.001	Kirol materiala: tenis eta futbolerako sareak, desfibriladoreak, etab.	1.360,95
	GUZTIRA	17.079,08

GAITUTAKO KREDITUEN ZENBATEKO OSOA:

17.079,08

Artziniegan, 2016ko irailaren 28an.”

Arkaitz San Jose Martinez: Uste dut aurreko bilkuran esan nuela, gustatuko litzaidake Batzordeen irizpenetan, hau da, Batzordeetatik eratorritako proposamenetan, gaien inguruko bozketaren nondik norakoak jasotzea, hots, ez zehazki honetan soilik.

Ascension Hormazabal Meabe: hau zehazki kontabilitate-espeditetik ateratzen da eta horrela ateratzen da.

Alkatea: gaikuntza hau bozkatu egin genuen ezta? Gaikuntza hau bozkatu egin genuen eta guztiok ados gaude, ezta?

Arkaitz San Jose Martinez: ez dut ezetzik esaten. Ahobatezkoa bada, hala jaso dadila, ez bada eragozpen gehiegi.

Ascension Hormazabal Meabe: ez, aurrerantzean boto-asmoa jasoko dut irizpenean.



Alkatea: beno, orduan bozkatu egingo dugu.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).
Onartuta geratu da.

3. Kreditua estrajudizialki aitortzea (2015eko gastuak).

Alkatea: ez dut akordioa irakurriko. Kontua da ekarpen-partida, 6.207,91 eurokoa, Aiarako kuadrillari ematea, izan ere, 2014ko azken hiru hilabeteetan leku-aldatze bat dago ordaindutako hiru hilabeteetan. Horrenbestez, bata bestearekin nahastu eta bat ordaintzeke geratu zen. Eta zor hori aitortu egin behar da. Ez dakit zerbait adierazi nahi duzuen.

“AKORDIO-PROIEKTUA

IKUSIRIK 2016ko irailaren 20an Idazkaritzak 2015eko ekitaldiko hurrengo kreditua estrajudizialki aitortzeko prozedurari eta legeria aplikagarriari buruz igorritako txostena:

Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA.

Laugarren hiru hilabeteak dagozkion ekarpenak (2015 Gastu Orokorrak...)

Erregistro-data: 2015eko urriak 6, 2269 zenbakiduna.

Zenbatekoa 6.207,91 eurokoa.

KONTUAN HARTUZ 2016ko irailaren 20an Kontu-hartzaitzak igorritako txostena, aitortzen hori zilegi zela adierazten zuena.

KONTUAN HARTUZ Alkatetzak horri dagokionez egindako proposamena, eta ikusirik Udaltzari apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 60.2. artikulua arabera esleitzen zaion eskuduntza, 2016ko irailaren 28an Ogasun arloko Informazio-batzordeak erabaki du Udaltzari proposatzea hurrengo

AKORDIOA

LEHENIK. Hurrengo kredituaren aitortzea, 2015. ekitaldiari dagokiona.

Hirugarrena: AIARAKO KUADRILLA.

Laugarren hiru hilabeteak dagozkion ekarpenak (2015 Gastu Orokorrak...)

Erregistro-data: 2015eko urriak 6, 2269 zenbakiduna.

Zenbatekoa 6.207,91 eurokoa.

BIGARRENIK. Dagokion kreditua aplikatzea, 2016ko ekitaldiko Aurrekontuan kargatuta, “Aiarako Kuadrilla. 2015eko 4. hiru hilabeteak dagozkion ekarpenak” izeneko 942.421.001 aurrekontu-aplikazioan kargatuta, 6.207,91 euroko gastuari aurre egiteko, 2016ko egungo aurrekontuan dagokion aldaketa egin ostean, aurrekontu-aplikazioa sortu eta ekonomikoki hornituz.

Artziniegan, 2016ko irailaren 28an.”

Kontran:



Batere ez
Abstentzioa:

Batere ez
Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).
Onartuta geratu da.

4. 2016ko hirugarren hiruhilekoko egikaritze-aurrekontuaren berri ematea.

Alkatea: hor duzue irailaren 30era arteko datua. Eskubide garbiak ditugu aitortutako betebeharren gainean 84.385,38 euro saldo positiboaz. Ez dakit zerbait adierazi nahi duzuen.

Joseba Vivanco Retes: nik baditut zenbait galdera partida batzuen inguruan, baina ziurrenera hurrengo bilkuran erantzutekoak izango dira. Kontuan hartuz ekitaldia amaitzeko hiru hilabete geratzen direla, Gobernu-taldeak zenbait partida nora bideratu behar dituen jakiteko. Horietako bat gazteen jarduerari buruzkoa da, 2.500 eurokoa, hasiera batean deus gauzatzeke dagoena. Horrez gain, denbora libreko monitore ikastaroaren partida dago, 10.000 eurokoa. Ikastaroa ez zen atera, baina ez dakit partida hori gazteen gaiarekin zerikusia duen nonbaitera atera daitekeen ala ez. Halaber, bada aurten onartutako beste partida bat, bereziki partida irekita mantentzeagatik urtero 100 euroko aurrekontua zuen partida bat zelako, mendi, proiektu eta birpopulazteei buruzkoa da. 6.000 euroz hornitu zen partida eta, oraindik, irailean, partida hori ukitu gabe dago. Horrenbestez, ez dakit diru horrekin zerbait egiteko aurreikuspenik dagoen. Halaber, bideen seinaleztapenari buruzkoa, 1.500 eurokoa, hori ere ukitu gabe baitago. Gainera, bada aurten berria den beste partida bat. Turismo-jardueren sustapena, 1.000 euroekin hornitu zena eta, hasiera batean, hura ere ukitu gabe dago. Eta gainera, auzoetako inbertsioei buruzkoa, hasiera batean 16.000 euroko kreditua zuena eta, hasiera batean, gaur egun, partida horretan ere ez da deus xahutu. Horrenbestez, agian hurrengo bilkurari begira, aipatu ditudan partida zehatz horiekin lotutako aurreikuspenik dagoen jakiteagatik zen, nonbait bideratu behar ote diren.

Alkatea: hurrengo bilkuran hobeto zehaztu ahal izango dizut. Dena den, egia da gazteen jarduerari buruzkoa ez dugula, Amurriorekin genuen hitzarmena atera dugu. Amurriorekin genuen hitzarmenari dagokionez, neska-mutikoak ez dira animatu hitzartuta zeuden jarduerak egitera, hilean behin eskaintzen zirenak Aiara, Urduña eta Amurrioko Udalekin. Udako jarduera ere atera genuen, abentura-aste bat, eta horretan ere jende gutxik eman zuen izena. Horrenbestez, azken hiruhileko honi begira gazteentzako jardueraren bat egin nahi dugu. Gainera, kontuan hartu behar da partida hori areagotu egingo dela, izan ere, Vital kutxarekin sinatu dugun hitzarmenean 1.000 euro daude gazteentzako jardueretarako, eta beste 1.000 euro berdintasunarekin lotutako jardueretarako dira. Denbora libreko monitorearen ikastaroari dagokionez, diru-sarrera batzuen baldintzapean dagoen gastu-partida bat da. Horrenbestez, aurten ez da atera, eta bada 2.000 euroko soberakin bat. Guk, hasiera batean, hurrengo urtean partida berriro atera nahi dugu ea ikastaroa ateratzeko modua dagoen.

Arkaitz San Jose Martinez: Foru Aldundiari egindako komunikazioan ez da horrela adierazten, izan ere, hurrengo urtera begira partida hori bazter utziko dela aipatzen da.

Alkatea: Barkatu?

Arkaitz San Jose Martinez: oker irakurri ez badut, agian bai ordenagailuan irakurtzea korapilatsu samarra baita, bilkura honetako deialdian sartzan den dokumentuetako bat hurrengo urteko aurrekontuaren egoera nolakoa izango den adierazteko lehen zirriborro bat da, eta bertatik kentzen den gaietako bat horixe da hain justu.

Alkatea: ikus dezagun. Aipatu zen moduan, Dekretu hori Ministeriora igortzen den formalismoa baino ez da, Kontu-hartzaitzak eratzen duena, non inbertsioak kenduta, funtsean ohiko diru-sarrera eta gastuak jasotzen baitira.

alkatea: ... partida hori iaz berri modura sartu zen.

Ascension Hormazabal Meabe: Baina aurrekontuaren hastapenetik dago?

Alkatea: bai, aurrekontuaren hastapenetik dago.



Ascension Hormazabal Meabe: aurrekontuaren ildo nagusiak dira, non Ministerioari ohiko diru-sarrera eta gastuen berri ematen zaion, gastu publikoa kontrolatze aldera.

Arkaitz San Jose Martinez: hemen zera dio “*termes, denbora libreko monitoreen ikastaro, gazte txoko eta energia-auditoretzari dagozkion aurrekontu-aplikazioei baja ematen zaie*”.

Alkatea: bada, ildo orokorra formalismoa baino ez da, ezertarako balio ez duena.

Arkaitz San Jose Martinez: ados, baina arreta eman dit, izan ere, Iñigok aipatu du berriro sartuko dela, eta igorritako dokumentazioan ezezkoa esaten da, eta horiek aipatzen dira eta ez beste batzuk.

Alkatea: bada ez, hori Kontu-hartzailatzatik eratzen den dokumentu bat da, formalismo hutsa, ez du deus esanahi. Mendi nahiz proiektu eta birpopulatzeei dagokienez, Foru Aldundiak diru-laguntzaren gainean emateko ebazpenaren zain gaude, non mendi publikoaren, 6 eta 7 mendien (horiek dira mendi produktiboak), kudeaketa iraunkorrerako plan baten eraketa sartu dugu. Ondoren, baita pasabide eta kanadar batzuen instalazioa ere, eta baita garbiketa bat Peñalban. Bideen seinaleztapenari dagokionez, seinaleztatzeko arazorik emango ez diguten bideak hasteko urratsak ematen ari gara dagoeneko, behin seinaleztatuta errazago erabiltzekoak direnak, izan ere, Ganzorrotzek zuen memoriaren barnean baziren zubi bat ipintzea eskatzen zutenak eta, beno, kontua errazenekin hastea da. Osakidetzari diru-laguntza bat eskatu zaio, jarduera osasuntsua sustatzeko diru-laguntzaren barruan, bideen seinaleztapenaren zati bat finantzatu ahal izateko. Turismo-jarduerak onartzeari dagokionez, egia da partida hori oraindik ukitzeke dagoela. Egin ditugun jardueren kasuan aurten Arabako Foru Aldundiaren aldetiko diru-laguntza lortu dugu. Eta auzoetako inbertsioei dagokienez, bada inbertsioak sartu ditugu, bideak egiteko, bideak hobetzeko, diru-laguntzen proposamenak sartu ditugu Foru Aldundian, hogeita hamar mila eurotik gorako zenbatekoaz. Hori, auzoek egindako eskaera zenbait ere aurrekontu horretan kargatuta gauzatu ahal izatearen kalterik gabe. Baina hori hurrengo bilkuran zehaztuko dizut hobeto.

Arkaitz San Jose Martinez: beno, nik gauza pare bat nituen. Alde batetik, Sodupeko kiroldegiarekin dagoen hitzarmenari buruzko balantze bat egitea gustatuko litzaiguke, bada, ea funtzionatzen ari den ala ez. Eta, beste kontua zera da, oso litekeena dela gazteek proposatzen zaizkien jardueri ez erantzutea galdetzen ez zaielako.

Alkatea: Arkaitz, axola ez bazaizu, oraindik aurrekontuen egikaritzearen gaiarekin gaude.

Arkaitz San Jose Martinez: bale, ados.

Alkatea: Jarraituko dugu? Baduzue besterik?

Berlaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

5. 2016ko hirugarren hiruhilekoko ordaintzeko batez besteko epeari buruzko txostenaren berri ematea.

Alkatea: ordaintzeko batez besteko epea 1,34 egunekoa da. Hori da makinatik ateratzen datua. Ezer esateko?

Berlaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

6. Alkatetza-ebazpenen berri ematea

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 2016. urteko 133-157 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du.



Alkatea: hori da. Baduzue ezer esateko? Bada, orduan, orain bai, udal kudeaketaren kontrolari helduko diogu.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

7. Udal kudeaketaren kontrola

• Arkaitz San Jose Martinez: beno, nik esan egin dut zuk gastua zergatik ez den egin testuinguruan ipini duzulako, orduan nik ere testuinguruan ipini dut jarduerarik ez bazegoen agian beren interesekoak ez zirelako izango zela, horregatik zen besterik gabe. Eta, beno, beste gaia zera da, beno, kontua da gauza asko ahaztu egiten ditugun batzordeetan... beno, ez dio axola. Funtsean, kasu jakin honetan Soduperekin igerilekuaren gaiarekin dagoen hitzarmenaren berri izateko zen, bada horrelakorik badago, ez du zertan orain izan, baina bai egin dadila...

Ascension Hormazabal Meabe: urtearen amaieran likidazioa igortzen dute.

Alkatea: oraintxe ezin dizut ezer esan, izan ere, ez dugu hura erabiltzen ari diren, hitzarmenaz baliatzen ari diren, pertsonen gaineko daturik. Gazteen gaiari dagokionez, ez dakit ikastaroak gustatzen ez zaizkien, ala gustatu bai baino haien berri izaten ez duten, ala gustatzen zaien baina eskaintzeko unerik egokiena ez den. Egia esan ez dakigu zertan huts egin dugun, ez dakigu zergatik ez duten neska-mutikoen izen eman, eta egia den neska-mutikoen hitz egiten duzula eta haiei gustatu egiten zaizkiela proposatzen ziren jarduerak. Baina gero, ordea, ez dute izenik ematen. Agian egin zen unearekin dago okerra, akatsa. Eta, gainera, era berean jolas txokoak osatzeko ekimena ere bazen, neska-mutiko koskorragoei jarduerak eskaintzeko.

• Joseba Vivanco Retes: nik banituen pare bat kontu. Batak bilkuretako akten gaiarekin du zerikusia. Aspaldidanik ez dira web-orrialdean ipintzen. Ea ba, arazoa zera bada...

Alkatea: bai, aurreko astean ikusi nuen eta dagoeneko agindu da pixkanaka ipin daitezela. Eta, are gehiago, nahas-mahasa dugu gaztelaniz dauden eta euskaraz dauden akten artean. Horrenbestez, duguna argitaratuko dugula erabaki da. Ez dugu itxarongo aktak elebitan izan arte. Beraz, gaztelaniz argitaratuko ditugu, eta euskaratzen diren heinean, euskaraz argitaratuko ditugu.

Joseba Vivanco Retes: bai, izan ere, atzerapena handi samarra zen jadanik.

Alkatea: bai, nik uste dut 2015eko urrikoa zela.

• Joseba Vivanco Retes: beste kontu bat... ez dakit badakizuen, izan ere, dagoeneko ez dugu ezer berririk jakin Bizkaiko Foru Aldundiak Gordexolako irtenguneekin egin behar zuen txostenaren gaiarekin. Hasiera batean, gaiaz hitz egin zenean, kontua zen ekainerako edo uztaileko, izan ere, ia urtearen hastapenaz ari gara hitz egiten, txostena prest izango zela hiruzpalau hilabetetan, beno, irailean ere ez genuen galdetuko uda baitzegoen tartean... urrian gaude eta, besterik gabe, horren berririk ba ote den jakiteko, data jakin baterako prest izango den, laster izango den ala...

Alkatea: Foru Aldundian galdetu dut eta aipatu didatenez, urrirako edo azarorako zerbait izango dugula espero dute.

Joseba Vivanco Retes: ados.

• Joseba Vivanco Retes: Beste kontu bat, egun hauetan URA agentziaren kontuarekin errekurritu egin den isuna iritsi da isurien erregulazioaren gaiarekin, eta hori zertan den galdetu nahi nuen. Ikusi dudanez, Udalak alegazioak aurkeztu ditu, baina ez dakit une honetan zertan den hondakin-uren proiektuaren kontu hau, 2020. urterako egon behar dutela eta abar... aurreko legealdian jorratu zen hori jadanik, nora jo zitekeen bideratu zen, baina pentsatzen dut administrazioak.... Bai 2020. urtea da epemuga.



Alkatea: oraintxe Arabako saneamendu-plana amaitzeko zain gaude. Bertan Artziniegari buruzko azterketa zehatz bat egingo da eta sistema egokiena zein den erabakiko da. Araztegi bat den ala kolektore bat den, saneamendu-plan horren barnean. Horren zain gaude, baina, hala ere, urratsak ematen jarraitu behar dugu. Eta kontu horretan bai... Foru Aldundia egiten ari da. Dena den, ongi baderitzozue, hurrengo bilkuran aipatuko dugu hori.

Joseba Elejalde Ribacoba: Urkidetza Partzuergotik bada txosten bat 2005. urteaz geroztik kolektore bidez hondakin-urak Gueñeseko Hondakin Uren Araztegiara eramane daitezkeen aztertzeko, 2005. urtean negatiboa zen. Has gaitezen hortik. Izan ere, txosten hori ez badago, nahiz eta zuk orain esan Artziniegan Hondakin Uren Araztegi bat egiteko edo kolektore bidez hondakin-urak Gueñeseko Hondakin Uren Araztegiara eramateko Arabako txostenaren zain egon behar dugula, azkenean Gueñeseko Hondakin Uren Araztegiak Artziniega, Gordexola eta Sodupeko hondakin-ur guztiak jaso ezin baditzaie, hori baita dagoen guztia... bada, azkenean, arazo bat dugu. Hots, nire ustez, lehenetsuna txosten horrek izango luke, 2005. urtean negatiboa zena, txosten berri bat badago, 2016. urtean gaude, txosten hori une honetan positiboa bada, eta bestela Hondakin Uren Araztegi liluragarri hori gauzatu behar denean. Proiektua dagoeneko onartuta dago, Udal honetara ekarri dute, Udal honetan aurkeztu da eta udalerrri honetako biztanle guztiei hemen egingo zen obra handitzat saldu zitzaizen. Eta 2004-2008 bitartean gauzatzekoa zen obra batez ari gara hizketan.

Alkatea: Nik ez dut txosten hori ikusi, baina ingurumenarekin egon naizen bakoitzean hitz egin denaren arabera...

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, horregatik galdetzen dut, duela urte askotik datorren zerbait baita. Kontua da Juanma zegoelarik, txosten hori egin zela. Orduan, azken batean, orain alda daitezkeen ikusi behar da, errazagoa ote den Gueñeseko Hondakin Uren Araztegia handitzea Artziniegako hondakin-urak hara joan daitezkeen eta kostuak murriztagoak izan daitezkeen edo, azkenean, Hondakin Uren Araztegi bat egin behar ote dugun hemen, Artziniegan, eta horrek ekarriko lituzkeen kostuak guregan hartu. Hemen guztiok defendatu dugu naturalena Gueñeseko Hondakin Uren Araztegia eramatea litzatekeela, baldin eta Araztegi hark Artziniegako hondakin-urak har baditzaie, orduan hondakin-ur hauek Gueñesera eramane daitezela kolektore bidez. Eta horrela gastu gutxiago izan. Baina, jakina, horrek ondorio asko ditu. Gu Bizkaiko arroako kide izatea dakar, ez ginateteke Goi Nerbioiko kide izango, eta abar... Horrek zer esanahi du? esanahi du administrazioek, Arabakoak nahiz Bizkaikoak, ados jarri behar dutela behingoz, eta ez daitezela kaka nahasten aritu. Hori da arazoa, eta 2004. urteaz geroztik gaude hemen gai horrekin.

Alkatea: nik txostena ez dudala ikusi diotsut. Egia esan, ez dakit baden ala ez den.

Joseba Elejalde Ribacoba: horregatik diot. Nik lehendabizi Kantauriko Urkidetza Partzuergoari galdetuko nioke txosten horren inguruan, eta txosten horren arabera gero ikusiko da...

Alkatea: Ingurumen Sailarekin izan ditudan solasaldiak kolektorea gauzatu ahal izateko bideragarritasun ekonomikoari buruzkoak izan dira bet. Horrenbestez, bere garaian egon zitezkeen muga teknikoak dagoeneko ebatzita daudela ulertzen dut. Nik horrela ulertzen dut. Beste kontu bat da teknologiak ere aurrera egiten duela, gauza guztietan, eta 2005. urtetik 2016. urtera, bada, inguruabarrak aldatu egin dira. Hori bai, kolektoreak Gueñeseko araztegiara arte eramateko inbertsioek bere kostua dute eta araztegiak ere beste kostu bat du. Zuk diozula..., ados gaude eta hor ados nago, eta irtenbide logikoa kolektoreena dela dirudi. Urak ez du administrazioaz ulertzen, ura jaitsi egiten da, erreka Cadaguara doa eta Cadagatik Nerbioira. Horrela da.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, horretan ados nago erabat. Baina izan dezagun hori kontuan. Txosten horiek dira, azken batean, une batean edo bestean hondakin-urak hemendik Gueñesera eramane ditzakegun ala ez baldintzatuko dutenak. Hori mahai honen gainean jartzen baino ez naiz ari, hemen zaudeten askoz agian ez baituzue jakingo. Nik 2004. urtetik hemen egoteko zortea dudalako eta prozesu hau gaurdaino jarraitzeagatik dakit. 2005. urtean bada txosten bat.

Joseba Vivanco Retes: beraz, hasiera batean, Arabako saneamendu-plan hori ikusi arte itxaron beharko dugu, hark baldintzatuko baitu, adieraziko...



Alkatea: bai

• Joseba Vivanco Retes: eta azken kontu bat. Uda iritsi aurretik batzordera ekarri genuen gai bat da, eta azpimarratu egin nahi dut. Udal Gobernu obra-lizentzien arau-hausteen gaiarekin lurzorua legea aplikatzeko neurria hartzen has zedila eskatu genuela eta. Uda baino lehen gabiltza gaiarekin, mahai gainean geratu zen uda ostean berraztertzeotan. Horrenbestez, bada, hona ekarri nahi dut berriro eta planteatu nahi dugu, bederen, epemuga modura urtearen amaiera ipini nahi dugula Udal Gobernuaren aldetik horri buruzko erabakiren bat har dezan. Gaia jorraztetik harago, guk funtsezkotzat jotzen dugu, eta datorren urteari begira bederen jorra dadila.

Alkatea: egia esan maila teknikoan balioetsi dugun gai bat da eta, lehendabizi, espedienteak izapidetzeko langileen dedikazioari dagokionez zailtasunak ditugu. Hor dagoen zerbait da, badakit jorratu beharreko kontu bat dela, eta langileekin koordinatu behar dugula, eguneroko jardunarekin, zehapen-prozesu horiekin zein neurritan txerta daitezkeen ikusteko, eta baita kobrantza-prozesuak ere, horiek abian jartze aldera.

Joseba Vivanco Retes: guk egin beharreko zerbait dela uste dugu, zaintza-zerbitzuekin ditugun mugetatik harago komatxo artean, errealitatea da hautematen diren legaltasunik ezak ematen direla, izan ere, gero ikusten dugu zenbait txostenetan behar bezala bete ez diren obrak edo lizentziak geldiarazten direla. Horrez gain, mahai gainean guztiok ezagutzen ditugun gaiak ditugu bat-batean, arazo gehiago sortzen direlarik. Horrenbestez, kontu horretatik harago, gure ustez jorratu egin behar da, izan ere, azken batean bidegabekeria bat egiten da eta diskriminazio bat obra-lizentziak ordaintzen dituztenen aurka ordaintzen ez dutenekin alderatuz, zigorrik gabe ateratzen direnak edo, edozein kasutan, aurretiaz ordaindu behar zutena ordaindu baino ez dutenak egiten. Diskriminazio bat dela uste dugu, azken batean obra-lizentzia ordaintzen ari den edozein tonto hutsa dela dirudi, nolabait esatearren, izan ere, ordaintzen ez badu, isun bakarra hura ordaintzea baino ez da, eta jakina. Uste dut hori ezin dela horrela izan, eta Udalak dagokion moduan esku hartu beharko duela. Egin daitezkeen behaketaz harago, baina badakigu isunik jartzen ez diren kasuak ematen direla, baina txostenak egin behar dira. Txosten horiei dagokienez, ez dut esan nahi hilean txosten bat edo bi izatetik zazpi izatera pasa behar garenik, ez. Ez-betetzea hauteman denean txostena egitea baino ez, izan ditzakegun mugen barnean, hori jorratu beharreko beste kontu bat da, hots, hautematen diren kasuetan isuna jar dadila eta, bide batez, jendeak jakin dezala isunak ipintzen direla, kontuan har dezaten, harrapatzen zaionari isuna jarriko zaiola. Lizentziaz gain beste 300, 600 edo 1000 euro ordaindu behar badute, bada...

Alkatea: Bai noski, baina berriro diot zehapen-prozedura prozedura konplexua dela, prozedura berme-emailea da, bere epeak dituen prozedura bat da, preskripzio-datak ditu, iraungitze-datak, eta kudeaketa bat eskatzen du, haiek oso gertutik jarraitzea eta orain langileak egiten ari garen lanekin bada, hori hobetu egin behar dugu.

Joseba Vivanco Retes: bada, azkenean berdin jarraitu behar badugu, ez du... ez dakit gure tamainakoak diren beste Udal batzuek aplikatzen ote duten, edo azkenean hartara iristen ez denez esku-hartzen ez den, beraz, libre jarduteko aukera dago hori... ez dakit... baina tira, Udal Gobernuaren erabakia da.

Alkatea: Besterik?

• Arkaitz San Jose Martinez: nik bai, kontu pare bat. Beno bat, EH-Bildu alderditik hasieratik mantendu dugun kontu bat ekarri nahi dut berriro, diru-laguntzak nola, zergatik, zein denboran eta zertarako ematen diren edo ematen ez diren ezartzeko ordenantza edo dokumentu bat behar dela, batez ere jardueren kasuan, kirol arlokoak zein kultur arlokoak. Zentzu horretan, berriro gogorazi nahi dut, izan ere, azken batean, bestela gertatzen da jendeak, eta gertatu izan da eskatu egiten duten elkarte eta taldeak daudela, eta gobernu-taldeak ongi ala gaiz datorren erabakitzeko une horretan duen irizpidetik harago ezer zehatzik ez dagoenez, bada, gero ez dago..., ez dakit, zenbatekoa, baldintzak eta jarduera jakin batzuetan zergatik ematen diren ezarri beharko litzateke. Beno, uste dut kontu hori egunotan dagoeneko agertu dela Bozeramaileen Batzordean eta berriro aipatu nahi nuen, besterik ez.

Alkatea: bai, ñabardura bat soilik. Udal honetan diru-laguntzak emateko eskumena duena Tokiko Gobernuaren Batzordea da, eta Tokiko Gobernu Batzordean talde guztiak daude



ordezkatuta. Ez, hori diot gobernu-taldea aipatu duzulako. Guk ez dugu puntu horretan eskumenik, Gobernu Batzordeak baizik.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, baina badira Alkatetza Dekretuz hartzen diren akordioak.

Alkatea: Diru-laguntzetarako?

Arkaitz San Jose Martinez: bai.

Alkatea: ez.

Arkaitz San Jose Martinez: beste zerbait adierazten duen zerbait irakurri dudala uste dut. Beno, edozein kasutan, uste dut funtsean kontua argi dagoela eta eskaera hori egiten dugu.

• Arkaitz San Jose Martinez: eta beste kontu bat, ikastetxerako irisgarritasun-obraren gaiarekin zerikusia duena. Uste dut guztiok ondo gogoan dugula atzo egindako bilkura, beno, oso ongi dago bilkura egitea. Ez dakit horren ongi dagoen zubia itxi baino soilik zazpi egun lehenago egitea, kontuan izanda zazpi horietatik hiru besterik ez direla lanegunak. Argi dago hitz egin zenuenon aldetik prestutasun ona dagoela gauzak ahalik eta ondoen egiteko, baina esaten dugun lehen aldia ez denez, uste dut bilkura hau askoz ere lehenago egin behar zela, eta gauza askoz ere gehiago jorrazteko, izan ere, nik atzo hitza hartu nuen uste dudalako badirela zenbait kontu erantzuna merezi dutenak, baina egia da bilkurak egun jakin batzuetan sortuko den arazo batekin zerikusi handia zuela, horrenbestez ez zuen zentzu handirik obraz orokorki mintzatzea, zubia ixtetik haragoko balizko zalantzez hitz egitea, esate baterako, plano gainean leku batzuetan bi metroko espaloia egon behar dela adierazten duenean zergatik ez dagoen bi metroko espaloia. Bai, zer gertatuko den beheraguneekin, eta galtzadarekin gurutzatzen den gune guztietan beheraguneak egongo diren ala ez, edo altueran izan behar den. Izan ere, arau subsidiarioetan jasotzen bazen eta, gainera, horrela jasotzen zen Planaren beraren dokumentuetako batean, beherako bidegurutzeta biribilgune batekin ebazten zela, eta ez dut esaten aukera onena ez denik, baina, bat-batean, arau subsidiariotan biribilgune bat proposatzen da eta proiektuan ez. Ziurrenera ez da sartuko, baina tira. Halako kontuez hitz egiteko.

Alkatea: edo zehaztu dezala errepideak, izan ere, errepidearena da eskumena, ebatz dezala irtenbide onena hori dela.

Arkaitz San Jose Martinez: Noiz aurreikusten da obrak amaitzea? Izan ere, uste dut atzo hamabost minututan data ezberdinak entzun nituela. Badakigu Foru Aldundiaren arabera obren amaiera urriaren 21erako aurreikusten dela, atzo azaroaren amaiera aldera izango zela aipatu zen, eta bilkuraren amaieran abenduaren amaierarako izango zela esan zen. Hots, uste dugu ez zela izan behar hura bilkura bakarra, oso ongi dago bilkura bat egitea, besterik ez zen behar, bestela ez dakit nola erantzungo zitzaizen eragindako pertsona guztiei. Uste dugu bilkura hori bera lehenago egin beharkekoa zela, eta gehiago egin behar zirela eta obrak amaitzean edo obrak amaitu baino lehen besteren bat egitea espero dut. Are gehiago, atzo esan zutelarik ez zegoela inolako arazorik eta bilkurara bertaratzea beren egitekoaren parte dela. Eta horrekin ez dut adierazi nahi kasuistika landu ez denik, halako obra bati dagozkion kontu guztiak landu ez direnik, baina uste dut atzo jendea zegoen moduan zegoela edonork ulertzen duelako sakrifizio bat egin behar dela, eta hala esan zuen jendeak, baina denbora gainean zutela, eta uste dut zenbait erantzun nola eman ziren ikusita, ez zela behar bezala ulertu jendea zein egoeratan dagoen eta zergatik datorren bilkura batera halako jarrerarekin. Erraza da hona etorri eta azalpenak ematea, irtenbideak ematea, eta ez dut ulertzen zergatik itxaron zen galdera-txanda batera dagoeneko hartuta zeuden erabakiei buruzko informazioa emateko. Hots, ez dakit zergatik jartzen zaion jendeari, baina tira ziurrenera ez da Udalaren erantzukizuna izango etorri zen jendearena baizik, baina jendeari adierazten zaio egin ditzala egokitzat jotzen dituen galderak eta gero dagoeneko erabaki diren gai batzuen inguruko informazioak ematen dira, ziurrenera galdera horietakoren bat eta kezka bat ekidingo zutenak.

Alkatea: behin eta berriz aipatu duzu proiektua azaltzeko premia eta esan dizut aurreko legealdian proiektuaren azalpen bat eman zela. Proiektua hor egon da eta udaletxera iritsi zenetik eskuragarri dago ikusi nahi duen edonorentzat, hori horrela da. Atzoko bilkurari dagokionez, data Foru Aldundiarekin koordinazioan ipini zen egokitzat jo zen unean, onena edo okerreana izan zitekeen, baina garrantzitsua zen bilkura bat egitea eragindako pertsona horiekin. Horiek baitira kaltetu nagusiak eta obra honen eraginik nagusia lau eguneko etete hau da.



Arkaitz San Jose Martinez: larriena da.

Alkatea: bai

Arkaitz San Jose Martinez: eraginak egunero daude.

Alkatea: bai, baina larriena da. Horrenbestez, uste dut atzo Diputatuak, uste dut ongi erabakita, etete horren zergatia azaldu zuela lehendabizi, zergatik ez dagoen beste alternatibarik, zergatik ezin daitekeen bi alditan egin, uste dut galdera horiek guztiok egin dizkiogula gure buruari, zergatik eten behar den lau egunez, zergatik ezin den bi alditan egin, edo zergatik ezin den zubi paralelo bat muntatu, zein diren hori egiteko inguruabarrak eta, batez ere, atzoko bilkura auzotarrek larrialdi, Ertzaintza, suhiltzaile eta Osakidetzaren kasuan nola jokatu ikusteko zen. Jakin dezaten zubian etete bat egon arren, ez duela esanahi larrialdiak iritsi ezin direnik edo erantzute-denbora betikotu egiten denik. Ez da horrela gertatuko. Egia da zenbait kasutan, denbora oraingoa baino motelagoa izan daitekeela, suhiltzaileen kasuan adierazi zutenek Kosteratik iritsita ere lehenago iritsi daitezke, Osakidetzaren kasuan, bada, astelehenean egingo da koordinazio-bilkura, 4x4 erako anbulantzia bat bermaturik dago baina bertatik bertara ikusita eta obraren ezaugarriak ikusita askoz ere hobeto da anbulantzia bat egotea zubiaren alboan, baina hori, jakina, larrialdietako pertsonak balioetsi behar dute, eta Ertzaintza ere adi egongo da. Eta uste dut Foru Aldundiak eskatuta taxia eskaintzeko prestutasuna, proposamen positiboa dela. Berrito diot, auzotarrei eragingo zaien kaltearen barnean.

Arkaitz San Jose Martinez: ongi, ez dakit, ez dizut horren inguruan galdetu, beste zerbait galdetu dizut, baina...

Alkatea: beno, bada uste dut erantzun dizudala.

Arkaitz San Jose Martinez: atzo bilkuran aipatu zena erantzun duzu, ez duzu nik galdetutakoa erantzun.

Alkatea: beno, zuk atzoko bilkuraren gaineko zure balioespina egin duzu eta nik nirea. Besterik?

Joseba Vivanco Retes: kontu bat horrekin lotuta, agian zuri ere kezka iritsi baitzaizue. Hau itxita dagoenean hemendik ez igarotzeko alternatiba modura hartzen ari den kaleko auzotarrak, ez dakit zuek entzun duzuen baina nik entzun dut kezkatuta daudela Otsati kalea zein egoeratan geratuko den. Orduan, behin obrak amaituta Foru Aldundiari behatzera pasa daitezela eskatuko ote den...

Alkatea: bai, Otsati eta baita Elaxpe zonaldea ere, hor ere bada eta bigungune bat.

Joseba Vivanco Retes: hau da, nola geratuko den begiratuko dela. Kontua da esan didatela "aizu begira nola geratzen ari den, ea obrak amaitu eta egon den trafikoarekin kalea horrela geratu behar zaigun..."

• Joseba Elejalde Ribacoba: beno, nik lehenik eta behin, Iñigo, aurreko bilkuran aipatu nizun moduan, zalantzan jarri zenuela auzo batean garrantzitsutzat jotzen zutena eta jotzen ez zutena...

Alkatea: ez, ez, nik ez nuen halakorik esan e? Nik esan nuen nik ez nuela horren berririk, bilkura bat izan genuen eta ez zuten eskaerarik egin.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, ez zizutela helarazi. Nik 2016ko uztailaren 21ean, ez dizut ekarri baina pentsatzen dut irakurri duzula, eta irakurri egingo dut. "Alderdi Popularrak azaltzen du 2011. urtean Joseba Elejalde PP alderdiko zinegotziak bilkura egin zuela Benta, San Antonio eta Gordelizeko auzotarrekin; bilkura horretan auzo horietako bizilagunek hainbat eskaera egin zizkien beren auzoetako bizi-kalitatea hobetzeko. 2011ko uztailaren 27an PP alderdiko zinegotziak sarrera eman ziela auzotarrek sinatutako hiru idatziri gai horiek Tokiko Gobernu Batzordean jorra zitezten eta eskaera horiei ahalik eta lasterren konponbidea emateko. 2011ko abuztuaren 25ean Ezohiko Tokiko Gobernu Batzordea egin zela eta akordio hauek hartu zirela bertan guztion adostasunarekin:." Eta guztion adostasuna aipatzen dudanean esanahi dut, hemen gauden guztiok, hiru taldeek, oniritzia eman genuela eta hiruek aldeko botoa eman genuela.

"1.- Bilkura bat egitea Arabako Foru Aldundiko errepide sailarekin, beren proiektuen barnean San Antoniotik Bentarako espaloia gauzatzea sar dezan.



2.- Hurrengo deialdirako Foru Planari eskatzea Benta eta Gordeliz auzoetan argiteria publikoa hobetzeko diru-laguntza. (Hobekuntza hori ebatzi da dagoeneko).

Aurrez esandakoagatik zera eskatzen dugu:

1.- Udal honetako Alkateak gainerako taldeei gauzatutako ekintzen edo Arabako Foru Aldundiarekin egindako bilkuren berri eman diezaiela Tokiko Gobernu Batzorde batean auzo horietako batean dagoen espaloi gabezia konpontzeko.

2.- Aurreko legealdian edo honetan (espedientea ez da ezer agertzen) arrakastarik gabeko bilkuraren bat egin bada, gaia berriro har dadila auzo horiek beharrezko azpiegiturekin hornitzeko (espaloiak eta argiteria), beren egunerokotasunerako, izan ere, trafikiko-dentsitate handiko auzoak dira". Hau uztailaren 21ean sartu zen, irailen aipatu nuen.

Alkatea, bai, eta jorratu dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: zuk esan zenidan ez zenuela horren berririk, beno bada...

El Alcalde: ez, barkatu, nik zabuen kontuaz hitz egin nuen. Ez nuen zabuen gaiarekin eskaeren berririk.

Joseba Elejalde Ribacoba: hots, baduzula horren berri, 21ean eginda dagoela. Hori lehendabizi. Bigarrena, aurreko astean izan genuen lurraldeko Informazio Batzordeari buruzko galdera bat, Alderdi Popularrak eskatzen zuen moduan eragindako pertsonen hartutako akordioen berri eman zaien. Eta bigarrenik, hartutako akordioak zein epetan gauzatuko diren, izan ere, udalerrri honetako auzotarrek aurkeztutako eskaeretako bi urarekin lotutakoak dira, eta dagoeneko urrian sartzen ari gara eta noizbait hasi beharko da euria egiten eta arazoa larriagotu egin daiteke, hala partzelan nola pentsu-enpresan.

Alkatea: oraintxe bertan ez dakit egia esan. Ez dakit akordioen berri eman zaien.

Joseba Elejalde Ribacoba: Eta bi obra horiek noiz gauzatu behar diren adierazteko plangintzaren bat?

Alkatea: ez, oraintxe ezin dizut esan.

Joseba Elejalde Ribacoba: hurrengo bilkurarako informazioa ematea eskertuko nizuke, horren berri emateko.

• Alkatea: horren harira, bi gauza aipatzeko. Zuen taldetik idatzi bat jaso dut, Elaxpeko urbanizazioan ispilu bat jartzeko konpromisoa har dadila eskatuz. Bilkuran ez zen hori soilik jorratu, Stop baten instalazioa ere aipatu zen, barneko ispilu bat jartzeko aukera, azkenean ezetsi egin zena zonalde pribatuan jarri behar zelako. Estolda-tapen gaia ere eskatu zen, orientazioa alda ote zitekeen, ezin dela, eta egia da ispilu hori jartzeko dagoela. Ispilu hori oraindik ez da jarri obrak direla medio. Obren zonaldea izaki, ispiluak ez zuelako asko iraungo, baina idatzi hau jarri aurretik nik esan dut, obrak amaituta daude eta hitz egin dugu Foru Aldundiarekin, irailaren hasieran izan zen, eta orduan ispilua jarriko dugu. Brigadak gauzatuko dituen lanen barnean dago eta plangintza horren barnean noiz, ahal dutenean egingo dute.

Eta gero beste idatzi bat, Joseba, zuk aurkeztu duzuna, Garai hiribideko zonaldeko kexei dagokienez, saneamendu-sarearen egoera kaskarra dela medio. Hori jadanik aipatu genuen, diruzaintza soberakinekin itxi zenean zein inbertsio egin zitezkeen, eta gauzatzeko aurrekontua eskatu zenetako bat da. Orduan, Raulek aste honetan obra horietako zenbaiten aurrekontu bat banatu du, orokorra ikusi dut soilik, 140.000 edo 120.000 euro ziren, harekin aztertu gabe zein den obra bakoitzak duen zenbatekoa, egin ahal izateko. Ez duzue beste ezer?

Eta jorrazteko gai gehiago ez dagoenez, Saioa amaitutzat eman da aipatu eguneko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu izanik. Eta horren guztiorren gainean, fede ematen dut.